

XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3641

161/2025 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatutuko 10.36 artikulua arabera, eskumen eskusiboa du kirolaren arloan. Halaber, 10.22 artikulua arabera, eskumen eskusiboa du elkargo profesionalen eta tituludun lanbideen arloan, alde batera utzi gabe Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan ezarritakoa.

Eskumen horiek erabiliz, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 30eko 8/2022 Legea (Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa) onartu zuen. Onartu ondoren Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen 2023ko martxoaren 15eko akordioa, aipatutako ekainaren 30eko 8/2022 Lege horri buruzkoa. Akordio horren arabera, bi aldeek konpondutzat jo dituzte lege horretako manu batzuei buruz zituzten eskumen arloko desadostasunak.

Ekainaren 30eko 8/2022 Legea dekretu honen bidez garatzen da, Euskal Herriko Administrazio Orokorrean kirol arloko eskumena duen titularraren aginduak onartzea alde batera utzi gabe. Lege-erregelamendu harremanaren arauzko sarea justifikatzen da legeak manu osatugabeak edo printzipio mailakoak dituenen, eta, ondorioz, erregelamendua ezinbesteko osagarri bihurtzen da. Horixe bera gertatzen da ekainaren 30eko 8/2022 Legearekin, erregelamenduzko lankidetzarako zenbait dei egiten baititu. Alde batetik, 12.1 artikuluan xedatzen da erregelamendu bidez ezarri beharko direla Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroaren egitura, eginkizunak eta publizitate- eta funtzionamendu-araubidea. Bestetik, 15.1 artikuluan ezartzen da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionali eska dakizkiekeen aseguruaren gutxieneko estaldurak erregelamendu bidez eman beharko direla. Halaber, lehenengo xedapen iragankorrean (lanbidean jardutea legean eskatutako kualifikaziorik gabe) eta bigarren xedapen iragankorrean (legea progresiboki aplikatzea) erregelamendu bidezko lankidetzaren eskatzen da. Ez dugu ahaztu behar azken xedapenetako lehenengoko bigarren apartatuan ezartzen dela legean ezarritako betebeharrak formalak betetzeko epeak kasuan kasuko erregelamendu-arauetan zehaztuko direla.

Kualifikazio profesionalak eska daitezkeen heinean, eta legearen azken xedapenetako lehenengoaren arabera, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera ezinbestekoa da arauzko garapen honen bidez zehaztea jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalen eskubideen eta betebeharren irismena, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroko erregimena, ezar daitezkeen prozedurak eta Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskuordetu dizkion gainerako gaiak.

Dekretu hau I. kapituluarekin hasten da. Bertan, xedapen orokorrak biltzen dira: dekretuaren xedea, jarduketa-eremua, dekretuak araututako lanbideen zehaztapena, boluntariotza-araubideko jarduera profesionalen garapena eta kualifikazio profesionalen publizitate-betebeharrak.

II. kapituluaren legearen menpe dauden pertsonen lanbide-kualifikazioarekin lotutako zenbait kontu jorratzen dira. Kapitulu hori hainbat ataletan banatuta dago. Lehenengoa jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideak egiteko gaitasunak egiaztatzeari buruzkoa da. Halaber, aurretik aipatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen Akordioa betetzen du, eta ezartzen du, ekainaren 30eko 8/2022 Legeak eskatutako titulazioei dagokionez, lanbide horretarako kualifikazioa egiazta daiten Estatuaren eskumenekoak diren titulazio ofizialen bidez eta, era berean, une bakoitzean indarrean dagoen gainerako ordenamendu juridikotik ondorioztatzen diren beste titulazio, egiaztapen edo profesionaltasun-ziurtagiri batzuen bidez.

Aipatutako legearen lehenengo xedapen iragankorrean zehaztutakoa garatzeko, II. kapituluko 2. atalean jarduera profesionala gauzatzeko aldi baterako gaikuntza arautzen da; zehazki, legea indarrean sartu zenerako aipatutako legeak eskatutako lanbide-kualifikaziorik gabe maila profesionalan lan egiten zuten pertsonen kasuan.

3. atalean, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen bigarren xedapen iragankorrean ezarritako aldi baterako gaikuntza-prozedura arautzen da, kualifikaziodun profesionalak falta diren kasuetarako zein kirol-eremu berriak sortzen direnerako.

III. kapitulua jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideak arau-esparru berriaren oinarritzko piezetako bat arautzera bideratuta dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroa. Ezinbesteko tresna da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eta jarduera fisikoko eta kirol-arloko enplegatzaileen eta profesionalen eskubideak eta interesak defendatzeko, une oro egiaztatu ahal izateko EAEn jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan jardun nahi duten pertsonen kualifikazio profesionala.

Erantzukizun zibileko aseguruaren gaiari dagokionez, IV. kapituluak osatzen ditu Legearen 15. kapituluko aurreikuspenak. Aipatu behar da gutxieneko arrazoizko estalduren alde egin dela, eta, aukera ematen dela gainera, zerbitzu profesionalen prestazio okerrak eragindako edozein kaltetatik babesteko, erantzukizun zibileko aseguruaren ordeztasun, kaudio-aseguru baliatuta.

Esan beharra dago, halaber, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa betetzeko, dekretu hau egitean kontuan izan dela genero-ikuspegia. Ekarpen esanguratsuetako bat izan da gutxieneko kualifikazio profesional berberak eskatutako zaizkiela gizonezko eta emakumezko entrenatzaileei kirol-modalitate bereko gizonezkoen eta emakumezkoen kirol-lehiaketetan. Era berean, finantzaketa-plan bat aurreikusten du dekretuak azpiordezkapen handiena dagoen lanbideetan emakumeen presentzia handitzeko.

Hizkuntza arloan, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 5. artikuluan ezartzen da lege horren arau-garapenean lege horretan adierazten diren hizkuntza-eskubideak bermatzeko beste neurri batzuk jasoko direla. Agindu hori betetzeko xedez, dekretu honetan erantzukizunpeko adierazpenean euskarazko hizkuntza-gaitasunaren mailari buruzko informazioa sartzeko betebeharra jasotzen da; izan ere, xedea da legean araututako profesionalen bidez kirol-zerbitzuak ematen dituzten administrazio publikoek aipatutako artikuluan zehaztutakoa betetzen dutela egiaztatu ahal izatea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu dekretu honek. Dekretuaren xedea interes orokor bat da, ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatu nahi baitu, eta ezinbestekoa da lege hori ezartzeko.

Proportzionaltasun printzipioa dela eta, dekretuak xedea betetzeko ezinbesteko neurri batzuk ezartzen ditu, beharrik gabeko karga administratiboak sortu gabe.

Era berean, xedapen honekin efizientzia eta efikazia printzipioak bermatzen ditu; izan ere, ez da sortzen organo, erakunde edo zerbitzu berririk, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroa zuzenean sortu baitzuen ekainaren 30eko 8/2022 Legeak.

Dekretua izapidetzean gardentasun-printzipioa bete da, kirolaren arloko antolakunderik adierazgarrienekin entzunaldiaren izapidea egin baita, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta lurralde historikoetako foru-organoetako sailekin ere.

Segurtasun juridikoko printzipioaren arabera, arau honen eta indarrean den gainerako ordenamendu juridikoaren arteko koherentzia zaindu da.

Ondorioz, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorrita, nahitaezko txostenak egin ondoren eta Gobernu Kontseiluak 2025eko uztailaren 28an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Dekretuaren xedea.

Dekretu honen xede nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen artikuluetan jasotako aurreikuspenak erregelamendu bidez garatzea, bereziki, 12. eta 15. artikulua eta lehenengo eta bigarren xedapen iragankorrak. Gainera, dekretuak aurreko paragrafoan aipatutakoei lotutako beste gai batzuk arautzen ditu, lege hori osatzeko beharrezkoak direnak.

2. artikulua.– Dekretuaren aplikazio-eremua.

1.– Dekretu honetako xedapenak ekainaren 30eko 8/2022 Legeak araututako jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan ezarriko dira, oro har Euskal Autonomia Erkidegoan, baina baita hortik kanpoko kontzentrazio eta lehiaketetara joan behar izanez gero ere.

Ondorio horietarako, aurkakorik adierazi ezean, pertsona bat Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbide batean ari ohi dela uste izango da honako kasu hauetan:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu profesionalen bat eskaintzen duenean eta, aldi berean, Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta dagoenean.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-establezimenduren baten titular denean.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan sustraitutako entitateetan besteren edo bere kontura zerbitzua eskaintzen duenean.

2.– Dekretu honen ondorioetarako, lanbide-jardueratzat jotzen da jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideen berezko zerbitzuak ematea ordainsarien truke, eta kanpoan geratzen dira

boluntariotza-, adiskidetasun- zein familia-harremanen eta antzeko harremanen esparruan egin-dako jarduerak.

3.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko kirol entitateetako eta zerbitzu-enpresetako profesionalei ekainaren 30eko 8/2022 Legean ezarritako kualifikazio profesionalak baino ez zaizkie eskatuko, beren lanbidea, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen badute.

Plataforma birtualen bidez edo informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egiten den lanbide-jarduera Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremukotzat joko da, baldin eta zerbitzu horiek ematen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen egoitza edo helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan badago eta, horretaz gain, zerbitzu profesional horiek bertako kontsumitzaile edo erabiltzaileek eskuragarri badituzte.

4.– Ez zaie kualifikazio profesionalik eskatuko Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi eta lanbidea aldian behin Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten profesionalei, baldin eta zerbitzuen hartzaileak EAetik kanpoko kontsumitzaile edo erabiltzaileak badira. Ondorio horretarako, beren lanbidea noizik eta behin Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dutela esango da:

a) Kirolariei edo taldeei laguntzen badiete lehiaketetan, kontzentrazioetan edo aldi baterako kirol-prestakuntzako programetan.

b) Kirolariei edo taldeei laguntzen badiete aisiako kirola egiten.

Inguruabar horiek egiaztatu egin beharko dira Administrazio eskudunak, kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumenak erabiltzen ari dela, dagokion pertsona horri eskatutakoan.

5.– Kirol-elkarteren bateko jarduera fisikoko edo kiroleko profesionala baldin bazara eta estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialen batean parte hartu behar baduzu, ekainaren 30eko 8/2022 Legean ezarritako kualifikazio profesionalak baino ez zaizkizu eskatutako, kirol-erakunde horrek egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badauka.

6.– Dena dela, dekretu honen eremutik kanpo geratzen dira:

a) Urpekaritza profesionalarekin zerikusia duten jarduerak.

b) Salbamenduko eta sorospeneko jarduera profesionalak, kirolak ez direnak.

c) Parakaidismoko jarduera profesionalak, kirolak ez direnak.

d) Kirolerako ez diren Ibilgailu edo tresna motordunak gidatzean oinarritutako jarduera profesionalak.

e) Aisiako itsasontziak erabili edo gobernatzeko jarduera profesionalak, kirolak ez direnean.

f) Kirol-instalazioak edo -entitateak kudeatzeko jarduera profesionalak, ez badute betetzen kirol-zuzendarien funtzio espezifikorik jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak aplikatuz.

g) Indar armatuen EAEko zentro batean fisikoki prestatzeko jarduera profesionalak.

h) Ibilbideetako teknikarien berezko jarduera profesionalak.

i) Kirolekoak ez diren dantzako jarduerak.

j) Jarduera fisiko eta kirol egokituan kirol-teknikari ez diren laguntzaileek egindako jarduerak.

k) Umeen eta gazteen aisialdirako jarduera profesionalak, betiere kirol-jarduera fisikoak ez badu gainditzen jardueraren programazio orokorraren % 25, eta haren helburu nagusia bada hezikuntza- eta jolas-aisia sustatzea, bai eta denbora libre okupatzea ere, baina ez kirol-helburu hutsa.

7.– Dekretu honetako xedapenak ez zaizkie ezarriko jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko laguntzaileei. Horiek jarduera osagarriak edo beharrezko kualifikazioa duten teknikariek emandako jarraibideak baino ez dituzte egingo. Ezin dute eginkizun teknikorik izan. Aitzitik, dekretu honen xedapenak ezarriko zaizkie monitoreei eta entrenatzaileei teknikari laguntzaileen eginkizunak badituzte eta laguntza tekniko ematen badute entrenamenduak, lehiaketak eta prestakuntza-jarduerak garatzean.

8.– Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetako nazionalak eskuratutako lanbide-kualifikazioak aitortzeko, ekainaren 30eko 8/2022 Legeak arautu bezala, nazioarteko hitzarmenek eta aitortza hori arautzen duten Europar Batasuneko arauak eta ordenamendu juridiko horren transposizioa egiten duten Estatuko xedapenak ezarritakoa bete beharko da.

9.– Europar Batasunaz kanpoko estatuetan eskuratutako lanbide-kualifikazioak aitortzeko, nazioarteko hitzarmenek eta ezar daitezkeen xedapen arautzaileek ezarritakoa bete beharko da.

3. artikulua.– Lanbide-kualifikazioa eskatzen duten jarduerak boluntario gisa garatzea.

1.– Dekretu honen ondorioetarako, boluntariotza da pertsona fisikoek borondatez eta askatasunez egiten duten kirol-jarduera edo -jardueren multzoa, lan-, funtzionario- edo merkataritza-harreman batean kausarik izan gabe, Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean zehaztutako baldintzetan, inolako ordainsari ekonomikorik jaso gabe, aipatutako legeak ezartzen dituen gastuengatiko ordainak izan ezik.

Dekretu honetan araututako lanbideetako eginkizunak edozein elkarte edo erakundetan betetzen dituzten pertsonak, edo lan- zein merkataritza-harremana edo ordainpeko beste edozein harreman dutenak, ez dira inola ere boluntariotzat hartuko.

2.– Dekretu honetan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalentzako ezarritako aurreikuspenak lanbide-jarduerak boluntario gisa egiten dituzten pertsonen ere aplikatuko zaizkie, salbuespen hauek kontuan hartuta:

a) Aipatutako pertsonak ez daude behartuta dekretu honetan ezarritako erantzukizun zibileko edo kauzioko aseguru kontratatzeraz, boluntariotzako entitateak horiek aseguratzeko duen betebeharraren kalterik gabe, boluntariotzari buruzko legerian ezarritakoaren arabera.

b) Ekainaren 30eko 8/2022 Legean araututako lanbidearekin jarraitu nahi duten boluntarioek dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, dekretu honetan ezarritako baldintzetan; hala ere, ez dute Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalek Erregistroan izena eman beharko.

4. artikulua.– Dekretu honek ukitutako jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideak.

Honako dekretu hau jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbide hauei ezarri ahal zaie:

a) Gorputz Hezikuntzako irakaslea.

b) Kirol-monitoreak.

c) Kirol-entrenatzailea.

d) Kirol-zuzendaria.

5. artikulua.— Lanbide-kualifikazioen publizitatea kirol-zentroetan eta euskal kirol-erakundeetan.

1.— Lanbide-kualifikazioak behar bezala ezagutzen eta kontrolatzen direla eta ekainaren 30eko 8/2022 Legea betetzen dela bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan sustraitutako kirol-zentroetako ustiaketaren titularrek eta kirol-zerbitzuak eskaintzen dituzten euskal kirol-entitateek toki nabarmen eta erraz ikusten den batean argitaratuta izan beharko dituzte beti dekretu honen xede den lanbideetan aritzen direnen izen-abizenak, lanbidea eta lanbide-kualifikazioak, baita lehen sorospenetako prestakuntza ere. Lanbideen aipamenak ekainaren 30eko 8/2022 Legeak ezarritako izendapenetara egokituko dira.

2.— Publizitatea egiteko betebeharrak hori dute, halaber, jarduera fisikoaren eta kirolaren jarduera beren kontura egiten dutenek ere, dela jendeari irekitako establezimendu batean dela etxean edo informazioaren eta teknologiaren teknologiak erabilita. Betebeharrak hori eskatuko da, profesional horiek zuzenean edo hirugarrenen bidez zerbitzuen publizitatea egiten dutenean.

3.— Era berean, artikulua horretan aurreikusitako gutxieneko informazioa interesdunek dituzten webguneetan ere argitaratuko da, dagokionean. Informazio guztirako sarbidea erraza eta doakoa izango da.

II. KAPITULUA

LANBIDE-KUALIFIKAZIOA

1. ATALA

LANBIDE-KUALIFIKAZIOARI BURUZKO ESKAKIZUNAK

6. artikulua.— Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeko eta jarduteko lanbide-kualifikazioak egiaztatzea.

Ekainaren 30eko 8/2022 Legean arautzen diren lanbideetan sartzeko beharrezkoak diren kualifikazioak egiaztatu beharko dira, 3.4 artikulua araberak, lege horren xedapenetan aipatzen diren edo horien baliokideak diren lanbide-mailako titulu akademikoen bidez, edo, orobat, une bakoitzean indarrean den ordenamenduaren arabera ofizialtzat jotzen diren beste titulu edo ziurtagiri ofizialen bidez. Horrenbestez, EAEn jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan jarduteko behar diren kualifikazioak egiaztatzeke, Estatuaren eskumen eskusiboko titulu ofizialak erabili daitezke, baita diploma, ziurtagiri edo titulu homologatuak ere, baldin eta profesionalki aitortuta badaude edo aurrekoen baliokideak badira, unean-unean indarrean dauden Estatuko legeetan eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakoarekin bat.

2. ATALA

EKAINAREN 30EKO 8/2022 LEGEAK ESKATUTAKO TITULAZIORIK GABE LANBIDE-JARDUERAN ARITZEKO ALDI BATERAKO GAIKUNTZA

7. artikulua.— Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta lortutako gaikuntza.

1.— Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen lehenengo xedapen iragankorraren arabera, kasuan kasuko lanbidean jarduteko gaikuntza izango dute erregelamenduz ezartzen den moduan egiaztatzen dutenek legea indarrean sartu zeneko modu jarraituan, edo ez noizean behin, aritzen zirela araututako lanbide-jardueretan legean eskatutako kualifikaziorik gabe. Gaikuntza gauzatzeko,

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroaren plataforman erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dute elektronikoki, haren egoitza elektronikoa argitaratutako ereduaren arabera.

2.— Administrazio publikoarekin lan- edo administrazio-harremana duten langile publikoek Legean araututako lanbide-jarduerak garatzen bazituzten, han eskatutako kualifikaziorik gabe, ez dute erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharrik izango. Horrelakoetan nahikoa izango da dagokion administrazio publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroa informazioa igortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen zuzendaritzak zehaztutako terminoetan. Pertsona horiek Erregistroan gaitutako pertsonen atalean ere azalduko dira.

Enplegatu publiko horiek lanbide horretan jarraitu nahi badute lan- edo administrazio-harreman hura amaitutakoan, banaka aurkeztu beharko dute atal honetan araututako erantzukizunpeko adierazpena.

3.— Gorputz Hezkuntzako irakasleek ez dute erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharrik izango, ez sektore publikoan ez pribatuan aritu.

4.— Sektore pribatuan besteren kontura jarduten duten pertsonen kasuan, gaikuntza lortzeko erantzukizunpeko adierazpena enplegatzaile den entitateak aurkeztu ahal izango du, langilearen izenean eta haren ordezkari gisa, baldin eta horretarako baimena eskuratu badu.

8. artikulua.— Modu jarraituan, edo ez noizean behin, lanbide-jarduera egitea legea indarrean sartu aurretik.

1.— Dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, pertsona batek ekainaren 30eko 8/2022 Legean araututako lanbideren bat garatu duela ulertuko da, baldin eta legea indarrean sartu aurretik modu jarraituan, edo ez noizean behin, aurreko sei urteetan lan-, administrazio- edo boluntario-esperientzia gutxienerako bat badu gaikuntza nahi duen lanbide jakinean, gutxienerako ordu kopuru honekin:

a) Gaikuntzarako eskakizuna erdi-mailako kirol-teknikaria edo baliokidea bada, gutxienez 1.200 orduko esperientzia eskatuko da.

b) Gaikuntzarako eskakizuna goi-mailako kirol-teknikaria edo baliokidea bada:

1. Gutxienez 1.200 orduko esperientzia eskatuko da erdi-mailako teknikariaren titulazioa edo baliokidea badu.

2. Gutxienez 1.800 orduko esperientzia eskatuko da erdi-mailako teknikariaren titulazioa edo baliokidea ez badu.

c) Gaikuntzarako eskakizuna unibertsitateko gradu bat bada:

1. Gutxienez 1.200 orduko esperientzia eskatuko da goi-mailako teknikariaren titulazioa edo baliokidea badu.

2. Gutxienez 1.800 orduko esperientzia eskatuko da erdi-mailako teknikariaren titulazioa edo baliokidea badu.

3. Gutxienez 4.000 orduko esperientzia eskatuko da aurreko apartatuetan zerrendatutako titulaziorik ez badu.

2.– Aurreko apartatuan adierazitako esperientzia egiaztatzerik ez dutenek, dagokion lanbidearen eginkizunak egiten jarraitu ahal izango dute 2025eko abenduaren 31ra arte.

3.– Lan- edo administrazio-esperientzia honako agiri hauen bidez justifikatuko da:

a) Soldatapeko langileek, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren ziurtagiria –edo mutualitatearena edo antzeko beste organismoren batena–, garbi erakutsiz zer enpresa, lan-kategoria (kotizazio-talde) eta kontratazio-alditan jardun duen; eta, bestetik, lan-kontratua edo laneko esperientzia metatu duen enpresako ziurtagiria zehatz-mehatz erakutsiz kontratu-aldien iraupena, zer lanbide-jardueratan aritu zen, eta zer datatik zer dataz jardun duen. Enplegatu publikoen kasuan, lanean aritutako Administrazio Publikoaren ziurtagiria. Era berean, justifikatzeko balio duen edozein agiri ofizial onartuko da.

b) Langile autonomoen edo beren konturako langileen kasuan, bi agiri hauek: Ekonomia Jardueren Zergako alta-agiria; eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria –edo mutualitatearena edo antzeko beste organismoren batena–, garbi erakutsiz erregimen berezian zer alta-aldi izan duen, eta ondo deskribatuz zer jarduera profesionalean aritu den eta zer datatik zer dataz. Era berean, justifikatzeko balio duen edozein agiri ofizial onartuko da.

4.– Boluntario gisa egindako jardueraren kasuan, boluntario gisa ibilitako antolakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko da esperientzia justifikatzeko, eta, harekin batera, derrigor, hango datuak egiazkoak direla ziurtatzeko agiriak, esate baterako, federazio-lizentzia, arriskuak aseguratze dokumentua edo antzeko beste edozein dokumentu.

9. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea.

1.– Erantzukizunpeko adierazpena EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroaren plataforman aurkeztuko du, elektronikoki, interesdunak edo, dagokionean, haren ordezkariak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen zuzendaritzak onartu eta egoitza elektronikoan argitaratuko duen eredu normalizatuaren bidez. Dagokion entitateak ere aurkez dezake, dekretu honetan aurreikusitako kasuetan.

2.– Artikulu honetan ezarritako ondorioetarako, erantzukizunpeko adierazpena da profesionalek edo haren ordezkariak sinatutako agiria non adierazten duen, bere erantzukizunpean, aurreko artikuluan eskatutako eskakizunak betetzen dituela, dagozkion ziurtagiriak aurkezteko prest dagoela eta laneko esperientzia bidez edo trebakuntzako bide ez formalen bidez lortutako lanbide-gaitasunen aitortza eskatzeko hitza ematen duela, dekretu hau indarrean sartu eta bi urteko epean.

3.– Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen hamabigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzen dela egiaztatze, lege horretan araututako lanbideetako batean sartu eta jardun nahi duenak, baldin eta adingabeekin ohiko harremana izatea badakar, artikulu honetan araututako erantzukizunpeko adierazpenean, berariaz onartuko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroko arduradunari bere datuak kontsulta ditzala Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean, edo, bestela, erregistro zentral horren ziurtagiri negatibo bat aurkeztuko du, jarduera hasi aurrekoa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitako baldintzetan.

4.– Erantzukizunpeko adierazpenaren eredu normalizatuan honako informazio hau adieraziko da, gutxienez:

a) Kiroleko profesionala identifikatzeko datuak (izen-abizenak eta helbidea) eta, dagokionean, haren ordezkariarenak, sexua edo generoa barne, baita Nortasun Agiri Nazionala edo identifikatzeko agiri baliokideren bat ere.

b) Erantzukizun zibileko edo kauzioko aseguru-polizaren datuak, edo, aseguru hori kontratatze-tik salbuetsita egonez gero, salbuespen horren adierazpena.

c) Dekretu hau baino lehen egiten ari den jarduera fisikoaren edo kirolaren arloko lanbidea edo lanbideak eta lanbide horrek tokian bertan egotea eskatzen duen ala ez ekainaren 30eko 8/2022 Legearen arabera.

d) Lanbide-jardueran garatutako egitekoa edo maila, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 8., 9. eta 10. artikuluetan aurreikusitako kasuen arabera.

e) Bide formaletatik kanpoko prestakuntzaren edo esperientzia profesionalaren datuak (lanbi-deetan jarduteko).

f) Lanbide-jarduera modu jarraituan edo ez noizean behin egin izanaren datuak, dekretu hone-tan aurreikusitako terminoetan.

g) Lehen sorospeneko prestakuntza eskakizun hori arautzen duen arauaren arabera, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen arabera lanbide-jarduera gauzatzen den tokian bertan egon behar ez denean salbu.

h) Jarduera profesionalean aritzeko desgaiakuntza dakarren zehapen penalik edo administra-tiborik ez izatea. Kirol-federazioek jarritako etete- edo desgaiakuntza-zehapenak ez dira kontuan hartuko.

i) Adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbide arautuetako batean sartu eta jardun nahi izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profe-sionalen Erregistroko arduradunari baimena ematea bere datuak Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean begiratzeko, edo azken erregistro horren ziurta-giri negatibo bat aurkeztea, jarduera hasi baino lehenagokoa.

5.— Atal honetan aurreikusi gabekorako, dekretu honetako III. kapituluaren eta administrazio pro-zedura erkidearen legedian ezarritakoak arautuko du erantzukizunpeko adierazpena.

10. artikulua.— Erantzukizunpeko adierazpenaren eta ez aurkeztearen ondorioak.

1.— Erantzukizunpeko adierazpena aurkezte hutsak (dekretu honetan ezarri bezala eta baldin-tzetan) aldi baterako gaituko du interesduna, aurkezten den egunetik aurrera, ordura arte egiten zuen lanbide-jardueran aritzeko, baina ekainaren 30eko 8/2022 Legea indarrean jarri aurretik egi-ten zuen zereginerako edo mailarako besterik ez, entitate berean edo beste batean.

2.— Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko izapide elektronikoa bete ondoren, interesdunak automatikoki lortuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan gaikuntza behin-behineko inskribatu izanaren egiaztagiria. Bertan, ins-kripzio horri buruzko datuak jasoko dira, erantzukizunpeko adierazpenaren edukiaren arabera. Sistema informatikoak automatikoki sortutako agiri horretan adieraziko da Erregistroan dagokion atalean gaitzeko behin betiko egiaztagiria aurkezteko epea zein den. Gaitutako boluntarioek ez dute izenik emango.

3.— Eskatutako dokumentazioa edo informazioa dekretu honen 21.3 artikuluan ezarritako epean aurkezten ez bada, ez da lortuko dekretu honetan aurreikusitako gaikuntzaren behin betiko inskripzioa, eta ondorioz, behin-behineko inskripzioa ezereztu egingo da eta ezingo da jarraitu kualifikaziorik gabe lanbide-jarduera egiten, horrek ezertan galarazi gabe hurrengo artikuluko 1. apartatuan ezarritakoa.

4.– Gaikuntza ez da eraginkorra izango entrenatzaile lizentzia lortzeko edo lehiaketa federatuen alorrean hala aritzeko kualifikazio jakin bat arauz eskatzen duten kirol federazioetan.

5.– Artikulu honetako 1. apartatuan aipatzen diren gaikuntzek ez dituzte prestakuntza-prozesuak baliozkotzen eta egiaztatzen, ez dira titulu akademikoak edo profesionalak, eta aldi baterako baino ez dute gaitzen profesionala ekainaren 30eko 8/2022 Legea indarrean sartu aurretik egiten ari zen lanbide-funtziorako.

6.– Atal honetan jasotako gaikuntzak ez du salbuesten eskumenak aitortzeko eskaerak egiteko betebeharretik eskumenak aitortzeko baliabide ofizialen bidez, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren arabera.

7.– Erantzukizunpeko adierazpena ez bada Dekretu honetan ezarritako epean aurkezten, dekretu honetan ezarritako gaikuntza ez da lortuko eta ezingo da kualifikaziorik gabeko lanbide-jardueran jarraitu 2025eko abenduaren 31tik aurrera.

8.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz gero, organo eskudunak edozein unetan erabaki dezake zerbait ikuskatzea edo egiaztatzea, jakiteko agiri horretan dauden datuak benetakoak diren; eta, beharrezkoa bada, hartu beharreko kautela- edo zehapen-neurriak hartuko ditu.

11. artikulua.– Gaikuntza galtzea.

1.– Ikusten baldin bada erantzukizunpeko adierazpenean badela –idatzita edo erantsita– datu, adierazpen edo dokumentu oker edo faltsurik eta funtsezkoa baldin bada; ez bada eskatutako dokumentazioa aurkezten edo ez baldin bada adierazten legezko baldintzak betetzen direla, gaikuntza galduko da eta ezingo da lanbide-jarduerarik egin, betiere izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak baztertu gabe.

Horrelakoetan, EAEko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen zuzendari-tzaren titularrak, interesdunari entzunaldia eskaini ondoren, inguruabar horiek adierazten dituen ebazpena aginduko du, inskripzioa ezerezteko zehaztuko du eta lanbide-jarduera bertan behera uztera behartuko da interesduna.

2.– Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, funtsezkotzat joko da erantzukizunpeko adierazpenean jasotako edozein datutan, adierazpenetan edo dokumentutan zer edo zer okerra edo gezurra izatea, baldin eta eragiten badio kualifikazio pertsonalari, lanbideari, edo erantzukizun zibil profesionaleko aseguruari edo kauziokoari, dagokionean horrelakorik eska badaiteke.

3.– Gaitutako pertsonak ez badu eskatzen esperientziaren bidez edo prestakuntzako bide ez formalen bidez lortutako gaikuntzen aitortza dekretu hau indarrean jarri eta bi urteko epean, lortutako gaikuntza galdu egingo du kontraesaneko administrazio-espedientea egin ondoren eta ofizioz ezereztuko da erregistrotik.

4.– Era berean, gaikuntza galdu egingo da eta erregistrotik ezereztu egingo da gaitutako pertsonak ez badu gainditzen gaitutako lanbiderako konpetentzien estandarrak ebaluatu eta ziurtatzeko prozesua eta ondorengo hiru urteko epean ez badu lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko prestakuntza egiten. Ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesua amaitutakoan hasiko da epea kontatzen.

5.– Eusko Jaurlaritzaren barruan kirolaren arloko eskumena duen sailak indarrrik gabe utzi ahal izango ditu zenbait kirol-modalitate edo -diziplinako gaikuntzak, baldin eta prestakuntza modu nabarmenean edo eskusiboan bide ofizialek garatu bada.

3. ATALA

KUALIFIKAZIODUN PROFESIONALAK FALTA DIREN KASUETAN ALDI BATERAKO
GAIKUNTZA LORTZEKO PROZEDURA

12. artikulua.– Aldi baterako gaikuntza ezartzeko kasuak.

1.– Atal honetan araututako aldi baterako gaikuntzaren bidez, pertsona bati behin-behineko gaikuntza ematen zaio kiroleko entrenatzaile edo kirol-monitore izateko, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera, kasu hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Dagoen eskariari erantzuteko ekainaren 30eko 8/2022 Legean aurreikusitako kualifikazioak dituen profesionalik ez egotea.

b) Lege horretan aurreikusitako prestakuntza ofizialik ez egotea.

c) Kirol-eremu berriak egotea.

2.– Aipatutako kasurik gertatzen den ala ez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen zuzendaritzako titularraren ebazpen bidez erabakiko da.

3.– Inguruabar horiek zehazteko behar adina egiaztatutako informazioa erabiliko da eta informazio hori kirol-arloko kirol-erakunde eta -eragile publiko eta pribatuek emango dute. Dagokion ebazpen administratiboa prozedura garden eta publikoaren bidez hartuko da, elkargo ofizialei eta dagokion lanbidearekin zerikusi zuzena duten lanbideko edo enpresako interesak ordezkatzeko dituzten elkartei entzunaldi izapidea emanda.

4.– Artikulu honetan aurreikusitakoa ulertu behar da dekretu honetako bosgarren xedapen gehigarrian, federazioetako titulazioen bidez lanbideetan aritzeko gaitzeari buruzkoan, ezarritakoaren kalterik gabe.

13. artikulua.– Gaikuntza lortzeko prozedura. Ondorioak.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako ebazpenen bat hartu ondoren, gaitzeko prozeduraren deialdi publikoa egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen zuzendaritzaren titularrak, eta gutxienez honakoak hauek izango ditu prozedura horrek:

a) Deialdiak aipatutako lanbidearen edo lanbideen identifikazioa, kiroleko modalitatea edo espezialitatea edo kiroleko jarduera zehaztuta, dagokionean.

b) Gaikuntza lortzeko eskakizun orokorrak.

c) Kontuan izango diren eskakizunak eta irizpideak egiaztatzeko bitartekoak zehaztuko dira.

d) Gaikuntza-prozeduran ezarriko diren epeak.

e) Gaitu daitezkeen pertsonen kopurua mugatzen bada, deialdian ezarri beharko da muga hori, hautemandako beharren arabera.

2.– Gaikuntza gauzatuko da erantzukizunpeko adierazpena EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroaren plataforman aurkeztuta, elektronikoki. Horretarako, EAEko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikokan argitaratuko den eredu normalizatua erabiliko da.

3.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkezte hutsak (Dekretu honetan ezarri bezala eta baldintzetan) aldi baterako gaituko du deklaratzailerak, behar adina profesional ez dagoela egiaztatu den esparruko lanbide-jardueran aritzeko.

4.– Atal honetan aurreikusi gabekorako, dekretu honetako III. kapituluaren eta administrazio prozedura erkidearen legedian ezarritakoak arautuko du erantzukizunpeko adierazpena.

5.– Gaikuntza EAEko bakarrik da, lan-ondorioak ditu eta ez du inolako prestakuntza-prozesu gaitzen eta egiaztatzen. Gaikuntza lortutakoan, automatikoki inskribatuko da EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan. Gaitutako boluntarioek ez dute izenik emango.

6.– Gaikuntza aldi baterakoa izango da. EAEko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen zuzendaritzako titularren ebazpen bidez adostuko da profesional gabezia eta gaikuntza egoera amaitzea, eta gaikuntzaren amaierako data zehatza adieraziko da.

7.– Prozedura horren bidez aldi baterako gaikuntza duten pertsonen lanbide-jarduera mugagabe egin ahal izateko prestakuntza-ekintzak sustatu beharko ditu Kirolaren Euskal Eskolak.

III. KAPITULUA

EAE-KO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARLOKO PROFESIONALEN ERREGISTROA

14. artikulua.– Erregistroaren izaera eta objektua.

1.– EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroak administrazio izaera du eta publikoa da, bakarra eta doakoa, eta bertako funtsezko edukietan edozein pertsona edo erakunde publiko edo pribatu sar daiteke, dekretu honetan eta datu pertsonalak babesteko legerian ezarritako mugekin.

2.– Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen araututako jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan aritzen diren pertsonen, eta dagokionean, sozietate profesionalek emango dute izena Erregistroan.

3.– Izena eman behar duten profesionalen eskatutako zaizkien datuak egokiak, nahitaezkoak eta ez gehiegizkoak izango dira, Erregistroaren helburu nagusia kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak defendatzea baita, profesionalen kualifikazioa eta lanbidean aritzeko gainerako eskakizunak ezagututa.

15. artikulua.– Erregistroaren xedeak.

Erregistroaren xedeak honako hauek dira:

a) Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalen kualifikazioari buruzko informazioa ematea kontsumitzaileei eta erabiltzaileei, enpresa enplegatzaileei edo edozein interesduni.

b) Administrazioaren lana samurtzea, errazago kontrola dezan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan lanean ari direnen lanbide-kualifikazioa.

c) Administrazioari laguntzea hobeto ezagutzen jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideak zertan diren EAEn eta zer kualifikazio maila den, arreta berezia jarrita genero-ikuspegian.

d) Kirol-administrazioari laguntzea, agindu zaizkion sustapen-, programazio- eta plangintza-jarduerak egiten, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideen eremuan eta horien berezko prestakuntzetan.

16. artikulua.– Erregistroaren atxikipena.

1.– Kirolaren arloan eskumena duen EAEko Administrazio Orokorreko zuzendaritzari atxikita egongo da Erregistroa organikoki.

2.– Honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Erregistroarekin zerikusia duten jardueren zuzendaritza eta planifikazioa.

b) EAEko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen saileko titularrari Erregistroaren egitura aldatzeko proposamena egitea.

c) Inskripzioei, ezerezteei eta Erregistroko antzeko ekintzei buruzko ebazpenak onartzea.

d) Dekretu honetan aurreikusitako gainerakoak eta erregelamendu bidez zehazten direnak.

17. artikulua.– Bitarteko elektronikoak erabiltzea.

1.– Bitarteko elektronikoen bidez Erregistroari emandako datuak informatzeko, jakinarazteko eta egiaztatzeko sistema EAEko Administrazio Orokorrearen prozedura administratiboen tramitazio elektronikoan ezar daitekeen araudira egokituko da, datu pertsonalak babesteko xedapenak errespetatuta.

2.– Dekretu honetan araututako bitarteko elektronikoen bidez izapidetutako prozeduretan eskumena duten organoek egindako agiri administratiboak baliozkoak eta eraginkorrak izango dira, baldin eta benetakotasun-, osotasun- eta kontserbazio-bermeak eta araudi aplikagarrian aurreikusitakoak betetzen badira.

18. artikulua.– Erregistroaren egitura.

1.– Erregistroak honako atal eta azpiatal hauek izango ditu:

a) Gorputz Hezkuntzako irakasleen atala.

b) Kirol-monitoreen atala.

c) Kirol-entrenatzaileen atala.

d) Kiroleko zuzendarien atala.

e) Sozietate profesionalen atala.

Lanbide desberdin batek dituen atal bakoitzaren baitan bi azpiatal izango dira, bata pertsona kualifikatuentzat eta beste gaituentzat.

2.– Erregistroaren egitura hori aldatu egin ahal izango da, EAEko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen saileko titularraren agindu bidez.

3.– Erregistroan izena emandako datu guztiak sexuaren edo generoaren arabera bereizirik jaso, bildu, aztertu eta aurkeztu beharko dira martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 17. artikuluan aurreikusi bezala.

19. artikulua.— Erantzukizunpeko adierazpenean oinarritutako inskripzioa.

1.— Erregistroan inskribatzeko, EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroaren plataforman profesionalek edo horien ordezkariak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dute elektronikoki, EAEko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoa argitaratuko den eredu normalizatuaren bidez.

Halaber, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen bidez araututako jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan jarduteko Estatuak elkargo profesional bateko kide izan beharra ezartzen badu, elkargo horrek elkargokideen identitate eta titulazio edo lanbide-kualifikazioaren berri eman beharko diote Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroari. Gainerako kasuetan, elkargokideek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute aipatutako erregistroan, artikulua honetan aurreikusitako moduan.

2.— Lehendik Merkataritza Erregistroan inskribatuta dauden sozietate profesionalek ere eska dezakete dekretu honen xede den jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan dabilzan bazkideak, Erregistroan inskribatzea, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez. Aurrekoa gora-behera, berdin-berdin egin beharko da sozietate profesionala sozietate profesionalen atalean inskribatzeko eskaera, dagokion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.

3.— EAEko Administrazio Orokorrean kirol eta hezkuntza arloko eskumena duten sailek finkatuko dituzte, sailak desberdinak badira, Gorputz Hezkuntzako irakasleen datuak hornitzeko lankidetzak-mekanismoak, eremu publikoan nahiz pribatuan.

4.— Dekretu honetan araututako gainerako lanbideak sektore publikoan nahiz pribatuan besteren kontura soilik gauzatzen dituzten gainerako profesionalei dagokienez, pertsona horiek enplegatzen dituzten entitateek igor dezakete informazioa, EAEko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen zuzendaritzak zehaztutako eran.

5.— Dekretuaren kapitulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, erantzukizunpeko adierazpena da kirolaren eta jarduera fisikoaren arloko profesionalek edo dagozkien sozietate profesionalek edo horien ordezkariak sinatutako agiria, eredu normalizatuaren oinarritua egongo dena, eta hortaz, adieraziko duena ekainaren 30eko 8/2022 Legean, dekretu honetan eta ezarri daitekeen gainerako araudi orokorrean eskatutako baldintzak betetzen direla eta hitza ematen dutela lanbide-jarduerak irauten duen bitartean mantentzeko, eta dagozkion egiaztagiria eskura jarriko dituztela, hala dagokionean. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredu normalizatuak dekretu honen 9. artikuluan aurreikusitako gutxienezko informazioa jasoko du.

6.— Erantzukizunpeko adierazpena interesdunak edo, dagokionean, ordezkariak aurkeztuko du, lanbide-jarduerari ekin aurretik. Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalak, horien ordezkariak eta entitateak behartuta daude bitarteko elektronikoen bitartez izatera harremanak, Erregistroarekin zerikusia duen edozein izapide egiteko.

7.— Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, dekretu honetan aurreikusita dauden eta erantzukizunpeko adierazpen bidez hasi diren prozedurak salbuetsita egongo dira, oro har, ebazpen espresua emateko betebeharretik, dekretu honetan berariaz aurreikusitako kasuetan izan ezik.

8.— Erregistroak edo kirol-ikuskaritzak beste organismo eta entitate batzuei kontsulta egitea baimenduta dagoela ulertuko da, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztearekin, non eta prozeduran ez duen adierazten berariaz horren aurka egiten duela. Baimen horri berariaz aurka eginez gero, Erregistroak edo kirol-ikuskaritzak zuzenean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du interesdunak.

9.– Erantzukizunpeko adierazpena behin baino ez da aurkeztuko. Nolanahi era, funtsezko datuetan aldaketaren bat egonez gero interesdunak beste erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

10.– Funtsezko datuak aldatzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko epea hilabetekoa izango da, aldaketa hori gertatzen denetik aurrera.

11.– Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen hamabigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko, lege horretan araututako lanbideetako batean sartu eta jardun nahi duenak, baldin eta adingabeekin ohiko harremana izatea badakar, artikulua honetan araututako erantzukizunpeko adierazpenean, berariaz onartuko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroko arduradunari bere datuak kontsulta ditzala Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralean, edo, bestela, erregistro zentral horren ziurtagiri negatibo bat aurkeztuko du, jarduera hasi aurrekoa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitako baldintzetan. Heziketa Fisioko irakasleek bete behar hori betetzeko, Hezkuntza arloan eskumena duen sailak xedatutakoa bete beharko dute.

12.– Erregistroko organo arduradunak beharrezko jarduketak abiaraziko ditu Erregistroan inskribatutako profesionalak epai irmo bidez jasotako kondenei buruz Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketen Erregistro Zentralean dauden datuak ezagutzeko tresna bat ezartze aldera. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen saila lankidetzan arituko da Erregistro Zentral hori kudeatzeko eskumena duen Estatuko Administrazio Orokorrearekin, eta, horretarako, behar diren hitzarmenak ezarriko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroaren inskripzioan eragina izan dezaketen kondena judizialei buruzko informazioa emateko.

20. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpena zuzentzea.

Erantzukizunpeko adierazpena osatugabea edo akastuna bada dekretu honetan eskatutako datu edo adierazpenen bati dagokionez, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean hutsa zuzentzeko; eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

21. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpenaren ondorioak.

1.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu den egunetik bertatik jardun ahal izango da, oro har, lanbidean, betiere hargatik eragotzi gabe egiaztapenerako, kontrolerako eta ikuskapenerako ahalmenak. Era berean, dekretu honetako termino eta eskakizunen arabera aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpena nahikoa izango da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalak Erregistroan inskribatuta egoteko betebeharra betetakotzat jotzeko.

2.– Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 20.3 artikulua arabera, erantzukizunpeko adierazpena dagokion epean ez aurkeztearen ondorioz erregistroan inskribatzeko betebeharra ez betetzea arrazoi nahikoa izango da zehapen-prozedura hasteko.

3.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko izapide elektronikoa betetakoan, interesdunak automatikoki lortuko du Erregistroko plataformatik behin-behineko inskripzioa egin izanaren egiaztageria, eta erantzukizunpeko adierazpenaren edukiaren arabera Erregistroan inskribatutako datuak egongo dira bertan.

Dokumentu honetan adieraziko da interesdunak zein epe duen Erregistroan dagokion atalean behin betiko inskripzioa egiteko ziurtagiriak aurkezteko, prozedura administratiboen tramitazio elektronikolari buruz zehaztutako terminoetan; dena dela, gehienez hilabetekoa izango da epe hori.

4.– Dekretu honetan arautzen diren jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan jarduten dutenek beharrezko informazioa eta dokumentazioa eman beharko dute, aitortutakoa egia dela berresteko eta jardueraren kontrola egiteko. Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztutakoan dekretu honen 27. artikuluan aurreikusitako organo eskudunek edozein unetan erabaki dezakete zerbait ikuskatzea edo egiaztatzea, jakiteko ea emandako datuak benetakoak diren; eta, beharrezkoa bada, hartu beharreko kautela- edo zehapen-neurriak hartuko dituzte.

22. artikulua.– Inskripzioaren iraupena, aldaketa eta ezerezteak.

1.– Erregistroko inskripzioa mugagabea da, salbu eta, batetik, dekretu honen arabera inskripzioa aldi baterako eten dezaketen kasuetan, eta, bestetik, aldi baterako gaikuntzen kasuan.

2.– Inskripzioa aldatu edo ezereztu egin daiteke, erantzukizunpeko adierazpenik gabe, inskripzioaren oinarri izan ziren baldintzak betetzeari utzitakoan; horretarako dagokion prozedura administratiboa hasi beharko da, interesdunei entzunaldia eman eta ebazpen arrazoitu bat onartu. Prozedura horren ondorioz, posible izango da, hala badagokio, inskripzioa birsailkatu edo ezerezteak. Ezerezteko prozedura horrek ez du eragotziko artikulua honen 5. apartatuan aurreikusitako erregistro-ezerezte automatikoa.

3.– Lanbide-jarduera gauzatzeari borondatez uzten bazaio, Erregistroari jakinarazi beharko zaio dagokion erantzukizunpeko adierazpena elektronikoki aurkeztuta, inskripzioa ezereztu ahal izateko.

4.– Inguruabar garrantzitsuetan izandako aldaketak ere inskribatu ahal izango dira Erregistroan, batez ere honako hauek:

a) Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbidean jarduteko gaitzen duten lanbide-kualifikazio berriak lortzea.

b) Dekretu honek araututako jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko beste lanbide batzuetan aritzea.

c) Lehen sorospenen arloko prestakuntzako eguneratzeak.

5.– Lehen laguntzako prestakuntza eguneratzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, hori egiteko epemugatik sei hilabete igaro ondoren, automatikoki ezereztuko da inskripzioa, hargatik eragotzi gabe geroago eskatu ahal izatea. Plataforma elektronikoa eguneratzeko betebeharrari eta betebeharrak hori ez betetzearen ondorioei buruzko abisuak sortu beharko ditu.

6.– Erregistroan ezerezteak esan nahi du interesduna behartuta dagoela lanbide-jarduera bertan behera uztera. Nolanahi ere, berriro ekin ahal izango dio jarduerari, erregistroan dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ondoren.

23. artikulua.– Zehapenak idaztea.

1.– Lanbidean jarduteko ezinduta uzten duten zehapen administratibo edo penal irmoak Erregistroan idatziko dira, datu pertsonalak babesteari buruzko legerian ezarritako muga eta betekizunekin.

2.– Desgaikuntza-zigorraren epea igarotakoan, idatzoharra ezereztu egingo da ofizioz edo interesdunak hala eskatuta. Halaber, ebazpen zehatzailea epai irmo bidez deuseztatzen bada, ofizioz edo interesdunak eskatuta ezereztuko da idatzoharra.

24. artikulua.– Gaitutako pertsonak inskribatzeko araubidea.

1.– EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan gaitutako pertsonak inskribatzeko, dekretu honetan ezarritako araubide orokorra bete beharko da.

2.– Gaikuntzaren inskripzioa ezereztu egin daiteke dekretu honetan aurreikusitako arrazoiengatik eta ekainaren 30eko 8/2022 Legean eskatutako lanbide-kualifikazioa lortu ondoren interesdunak borondatez hala eskatuta.

25. artikulua.– Erregistroaren publizitate-erregimena.

1.– Erregistroaren izaera publikoaren ondorioz, edonork eskura ditzake inskribatutako pertsonen erregistroko datuak, lanbideari, kualifikazio profesionalei eta dauzkaten gaikuntzei buruzkoak badira. Erregistroaren publizitatean ez dira sartzen horrelako datu pertsonalak eskuratzeko: helbidea, egoera zibila, telefonoa, posta elektronikoa eta beste datu pertsonal batzuk, nahiz eta Erregistroan egon, baldin eta bere xedea betetzeko ez badute zertan publiko izan.

2.– Erregistroak ez ditu artatuko trumilka edo bereizi gabe egindako publizitate eskaerak.

3.– Erregistroaren publizitatea soilik bide elektronikoak erabilia egingo da, eta Erregistroko plataforma teknologikoak baimena emango du dagozkion ziurtagiri elektronikoak edonoiz eta edonork deskargatu ahal izateko.

26. artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen organoak behar diren neurriak hartu beharko ditu Erregistroaren funtzionamendua egokitzeko Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua –Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra– indargabetzen duena) eta ezarri daitezkeen gainerako legezko eta arauzko xedapenetan ezarritakora.

27. artikulua.– Datuak egiaztatzea.

Erregistroaren ardura duen organoak emandako datuen zehaztasun ezari edo faltsutasunari buruz egin ditzakeen egiaztapenez gain, kirol ikuskaritzak ere beharrezkotzat jotako egiaztapenak egin ditzake edonoiz.

IV. KAPITULUA

ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ASEGURUA ETA BESTE BERME BALIOKIDE BATZUK

28. artikulua.– Asegurua egiteko betebeharra.

EAEen jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan aritzeko aurrez erantzukizun zibileko aseguru bat edo kauzio-aseguru bat egin behar da lanbide-arloko zerbitzuak eskaintzen ari direla jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalek hirugarrenei egindako kalteak estaltzeko. Aseguramendu horrek ez dio kalterik egingo Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 87. artikuluan edo beste xedapen sektorial batzuetan ezarritakoa betetzeko sinatu behar denari.

29. artikulua.— Asegurua egiteko betebeharraren eremu subjektiboa.

1.— Asegurua egiteko betebeharra dute jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideak beren kontura gauzatzen dituzten pertsona fisikoek, gaikuntza dutenak barne.

2.— Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 15.2 artikuluaaren arabera, betebeharrak ez zaie ezarriko lanbide-jarduera zentro publikoetan garatzen duten Gorputz Hezkuntzako irakasleei, berariazko araudia baitute, ez eta beren lanbide-jarduera besteren kontura eskusibotasun-arau-bidean garatzen duten jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalei ere, kontratatatu dituen entitateak erantzukizun zibil profesionaleko asegurua edo kontingentzia horiek estaltzen dituen finantza-berme baliokidea sinatuta badu. Beren jarduera besteren kontura garatzen duten profesionalek lan hori beren konturako lanbide-jarduerarekin batera egiten badute, azkeneko jarduera hori aseguraturik izan beharko dute.

30. artikulua.— Estalduraren edukia eta epemuga. Aseguratutako zenbatekoak.

1.— Banako profesionalak erantzukizun zibila estaltzeko kontratatutako duen asegurua gutxienezko estaldurak honako hauek izango dira:

a) Aseguratutako urteko gutxienezko zenbatekoa 600.000 eurokoa izango da.

b) Ezbehar bakoitzeko gutxienezko azpimuga 300.000 eurokoa izango da.

c) Biktima bakoitzeko gutxienezko azpimuga 150.000 eurokoa izango da.

2.— Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalek besteren kontura zerbitzuak eskaintzen dituztenean enplegataileak kontratatatu beharreko asegurua gutxienezko estaldurak honako hauek izango dira:

a) Kontrataturik edo elkartutako kirolaren arloko profesional bakoitzak aseguraturik urteko gutxienezko zenbatekoa 600.000 eurokoa izango da eta guztizko gutxienezko muga 1.500.000 eurokoa.

b) Ezbehar bakoitzeko azpimuga 300.000 eurokoa izango da.

c) Biktima bakoitzeko azpimuga 150.000 eurokoa izango da.

3.— EAEko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen saileko titularraren aginduz eraldatu ahal izango da dekretu honetan araututako asegurua gutxienezko kopurua.

4.— Entitate aseguratailearen estalduran sartu beharko dira polizaren indarraldian nahiz amaitu ondoren aseguratuaren aurka aurkeztutako erreklamazioak, baldin eta erreklamazioak polizaren indarraldian gertatutako ekintzetan oinarritzen badira.

5.— Dekretu honetan ezarritako asegurua estaldurak ez die kalterik egingo indarrean den araudiak ezarritako eta bete beharreko gainerako estaldurei, ez eta askatasunez hitzartutako beste estaldurei ere.

6.— Kontrataturik poliza indarrean mantendu beharko da lanbidean jarduten den denbora guztian, salbuespenik gabe.

31. artikulua.— Asegurua egin dela egiaztatzea.

Asegurua indarraldia eta edukia egiaztatu egingo dira asegurua egin duen erakundearen estalduraren egiaztapen bidez, dagokion elkargoko erakundeak egindako ziurtagiri bidez edo poliza eta indarraldiari dagokion primaren ordainagiria aurkeztuta.

32. artikulua.– Kauzio-asegurua.

1.– Erantzukizun zibileko aseguruaz gain, erantzukizun zibila estaltzeko kauzio-asegurua kontratatu ahal izango da arloan aritzeko baimendutako aseguru-etxe batekin.

2.– Berme horri kapitulu honetan dauden erantzukizuneko aseguruari dagozkion xedapenak ezarriko zaizkio.

33. artikulua.– Beste estatu batzuetatik datozen profesionalen bermeak.

1.– Zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 21.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta, Europar Batasuneko beste estatu kide batetik datorren eta EAEen ezartzen den kirolaren arloko profesionalak dagoeneko erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo xedeari dagokionez beste berme baliokide edo konparagarri bat badu helburuari, lurralde-eremuari eta aseguraturako arriskuari, zenbatekoari edo bermearen mugari dagokienez, kapitulu honetan aipatzen den eskakizuna beteta duela ulertuko da. Baliokidetasa partziala baino ez bada, asegurua zabaltzeko edo beste berme bat eskatu ahal izango zaio, dekretu honetan finkatutako baldintzak bete arte.

2.– Europar Batasuneko kide ez diren beste estatu batzuetatik datozen profesionalentzat, kapitulu honetan aurreikusitako aseguramendua kontratatu beharko da.

34. artikulua.– Sozietate profesionalak.

Merkataritza Erregistroan, kasuan kasuko elkargo profesionalaren Sozietate Profesionalen Erregistroan eta EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan inskribatutako sozietate profesionalek erantzukizun zibileko aseguru bat edo kauzio-aseguru bat sinatu beharko dute, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan diharduten bazkideek beren lanbide-jardueran izan dezaketen erantzukizun zibila estaltzeko.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Katetoria bereko emakumezko eta gizonezkoen lehiaketetan kualifikazio profesional desberdina aplikatzeko debekua.

EAEko kirol-federazioek eta erkidegoaren esparruan kirol-jarduerak antolatzen dituzten gainerako erakundeek ezin izango dute eskatu lehiaketa-kategoria bereko emakumezkoen eta gizonezkoen lehiaketetan entrenatzeko kualifikazio desberdinik, Dekretua indarrean jarri eta hurrengo denboralditik aurrera. Une horretatik aurrera, ondoriorik gabe geratuko dira gizonezkoen edo emakumezkoen kategoria dela-eta kualifikazio txikiagoa eskatzen duten xedapenak, beraz, emakumezkoen lehiaketetan gizonezkoen lehiaketetan eskatzen den kualifikazio bera eskatuko da.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Emakumezkoen presentzia areagotzeko plana, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan ordezkapen txikia duten lanbideetan.

EAEko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen zuzendaritzak, Kirolaren Euskal Eskolaren eta Emakunderen laguntzarekin, urtero finantzaketa-plan bat onartuko du, emakumeen presentzia handitzeko honako arlo hauetan:

- a) Maila aurreratuko monitorea.
- b) Goi errendimenduko modalitate eta diziplinetako entrenatzaileak.
- c) Prestatzaile fisikoak.
- d) Kirol-zuzendariak.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Dekretu honetan ezarritako betebeharrak formalak betetzeko informazioa eta dokumentazioa.

1.– Dekretu honetan ezarritako betebeharrak formalak betetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenen ereduak eta gainerako ereduak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira eskuragarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoaren esteka honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/kirolaren-euskal-eskola/>

2.– Erantzukizunpeko adierazpenaren ereduak beti egongo da eguneratuta eta interesdunek erraz eskuratu ahal izango dute.

3.– Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalentzako informazioan eta dokumentazioan aurreikusten da bermatu beharko direla Sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuan ezarritako gardentasun-eskakizunak.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetako hizkuntza-eskubideak eta euskararen normalizazioa.

1.– Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 5.1 artikuluan ezarritakoa beteko dela bermatzeko, eta kirol-zerbitzuak ematen dituzten administrazio publikoek betetzen dela egiaztatu ahal izateko, profesional bakoitzak aurkeztuko duen erantzukizunpeko adierazpenean nahitaez jaso beharko da B2 hizkuntza-gaitasuna betetzen den edo ez.

2.– Era berean, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, Kirolaren Euskal Eskolak berrazko prestakuntzak sustatuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Federazioko prestakuntza duten pertsonak gaitzea.

1.– Dagokion nazioarteko edo Espainiako federazioak ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 4. artikuluan ezarritako errendimendu handiko kirol-lehiaketetan entrenatzaile edo kirol-zuzendari izateko aukera ematen badu, lege horretan eskatutako kualifikaziorik gabe, lehiaketa-maila horretarako automatikoki gaituko dira Espainiako edo nazioarteko dagokion federazioak eskatutako titulazioa dutenak. EAEko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen sailak beste kirol-lehiaketa batzuk gehitu ditzake, baldin eta euskal federazioetakoak ez diren taldeek parte hartzen badute.

2.– Era berean, entrenatzaile gisa jarduteko gaituta egongo dira ekainaren 30eko 8/2022 Legea indarrean jarri aurretik, araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak araututako kirol-irakaskuntzetatik edo dagozkien erregelamenduzko xedapenetatik kanpo federazio-diploma bat lortu zuten pertsonak. Federazio-diploma hori gaikuntzarako ondorioetarako baino ez da aitortzen. Ez da baliozkoa eta ez du prestakuntza-prozesurik egiaztatzen ez ondorio akademikoetarako ez profesioletarako. Federazio-diploma horrek federatutako lehiaketen arloan aritzeko gaitzen du soilik, eta gaikuntzatik kanpo geratzen da prestatzaile fisikoaren arloko lanbide-esparrua.

Egoera horretan dauden pertsonen dagokion federazio-tituluko kirol-modalitatean edo -diziplinan eta kirol-mailan jardun ahal izango dute, baina goragoko beste kirol-maila batzuetarako ere gaikuntza ere lor dezakete, baldin eta ekainaren 30eko 8/2022 Legea indarrean jarri eta bi urteko epean dagokion federazio-diploma eskuratzen badute.

3.– Aurreko bi apartatuetan jasotako gaikuntza dagokion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez gauzatuko da, eta profesionalki jarduten duten pertsonen erantzukizunpeko adierazpena

aurkeztu beharko dute, EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan, gaikuntza duten pertsonen azpiatalean, inskribatzeko.

4.– Xedapen gehigarri honetan jasotako gaikuntza ez da behin-behinekoa, eta ez da beharrezkoa lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzako bide ez-formalen bidez lortutako lanbide-gaitasunak aitortzea eskatzeko konpromisoa hartzea.

5.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkezte hutsak (Dekretu honetan ezarri bezala eta baldintzetan) automatikoki gaituko du deklaratzailerak lanbide-jardueran aritzeko, aurkezten duen egunetik aurrera.

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Lanpostuen arloan gaitzea.

Lanpostuen zerrenden eta aurrekontu-plantillaren arloan eskudunak diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoak gaitzen dira lanpostuen zerrendak eta aurrekontu-plantillak ekainaren 30eko 8/2022 Legetik eratorritako beharretara egokitze.

ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko berariazko ikuskapen-plana.

EAEko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen zuzendaritzak jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko berariazko ikuskapen-programa bat prestatuko du, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalek aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenen edukiaren egiazkotasuna kontrolatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan izena emateari dagokionez.

ZORTZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Agiriak elektronikoki aurkezteko gaitzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean kirolaren arloan eskumena duen zuzendaritzak hala eskatzen duten entitate jakin batzuk gaitu ahalko ditu erantzukizunpeko adierazpenak eta dekretu honetan beren langileentzat ezarritako gainerako jakinarazpenak elektronikoki aurkezteko. Gaikuntza horretan, baldintzak eta betebeharrak zehaztu beharko dira.

2.– Honako entitate hauek eskatu ahal izango dute aurreko apartatuan ezarritako gaikuntza:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioek beren langileei dagokienez.

b) Udalek, foru-aldundiek eta haien ente instrumentalek, enplegatuei dagokienez.

BEDERATZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Interesdunei laguntzea bide elektronikoak erabiltzen.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 12. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan eskumena duen zuzendaritzak neurriak hartu beharko ditu bermatu ahal izateko interesdunek bitarteko elektronikoaren bidez izan dezaketela harremana Erregistroarekin. Horretarako, haien esku jarriko ditu beharrezko sarbide-kanalak eta kasu bakoitzerako erabakitzen diren sistema eta aplikazioak.

HAMARGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Dekretua aplikatzeko prozesuaren ebaluazioa.

EAEko Administrazio Orokorrean kirolaren arloko eskumena duen zuzendaritzak dekretu hau aplikatzeko prozesua ebaluatuko du. Horretarako, Dekretuaren datuak eta gorabeherak bilduko ditu, eta dagozkion aldaketak proposatuko.

HAMAIKAGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Profesionaltasun-ziurtagiriak eta lanbide-ziurtagiriak.

Dekretu honen ondorioetarako, ekainaren 30eko 8/2022 Legean eta beste arau-xedapen batzuetan profesionaltasun-ziurtagiriei egiten zaizkien erreferentziak Lanbide Heziketa Antolatzeke eta Integratzeko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoan eta Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuan aurreikusitako lanbide-ziurtagiriei ere egiten zaizkiela ulertuko da.

HAMABIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Kirol-modalitate eta -diziplinen katalogoa.

Kirol-modalitate edo -diziplina jakin batean lan egiteko erantzukizunpeko adierazpenak Euskadiko Kirol Federazioen urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren Euskadiko Modalitate eta Diziplinen Katalogoan edo horren ordezkoko xedapenean oinarritu beharko dira dekretua aplikatu ahal izateko.

HAMAHIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Turismo aktiboko enpresetako teknikariak.

Kirol-monitorearen eta kirol-zuzendariaren lanbideetan aritzen diren turismo aktiboko enpresetako teknikariek, turismo aktiboa arautzen duen araudian ezarritako betekizunez gain, kualifikazio profesionalaren, erregistroaren eta aseguruaren inguruko eskakizunak eta Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean aurreikusitako gainerakoak ere bete beharko dituzte.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Lan egiteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea, ekainaren 30eko 8/2022 Legeak eskatutako kualifikazio profesionala izan gabe.

1.– Ekainaren 30eko 8/2022 Legea indarrean jarri zenean legean eskatutako kualifikazio profesionalik gabe dekretuan araututako lanbideren batean aritzen direnek gaitzeko beharrezkoa den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute 2026ko urtarilaren 1a baino lehen.

Epea bukatu baino lehen aurkezten ez dutenek ezin izango dute jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbidearekin jarraitu ekainaren 30eko 8/2022 Legean eskatutako kualifikazioa izan gabe 2026ko urtarilaren 1etik aurrera.

2.– EAEko Administrazio Orokorrean jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko eskumena duen saileko titularrari ahalmena ematen zaio aurreko apartatuan ezarritako epea luzatzeko, betiere lan-merkatuan beharrezko kualifikazioa duen pertsona nahikorik ez dagoela egiaztatzen bada, edo, interes publikoagatik, epea luzatzea eskatzen duen antzeko beste edozein inguruabar gertatzen bada.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Lan egiteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea, ekainaren 30eko 8/2022 Legeak eskatutako kualifikazio profesionala izanda.

Dekretu hau indarrean jartzen denean dagoeneko jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideren batean zihardutenek ekainaren 30eko 8/2022 Legeak eskatutako kualifikazio profesionalarekin, jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan zerbitzu profesionalak eman ahal izateko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute dekretu hau argitaratu eta 3 hilabeteko epean.

Epea bukatu aurretik ez aurkeztea ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 20.3.a artikuluan jasotako arau-hauste astuntzat hartuko da.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.— Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 28an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA.